



Lortutako produktuak



- “Diseño en 3D.V13” liburua argitaratu eta inprimatzea, ikasgelarako material didaktiko gisa.
- Fabrikazio gehigarriko Witbox makina, proiektuan parte hartu duten ikastetxeentzat.
- Fabrikazio gehigarriko Power Code makina; taldeki-deek eraiki dute Sicnova enpresan egindako ikastaroan.
- Fabrikazio gehigarriko eskuliburua, 3D inprimagailuak hautatzen eta maneiatzen laguntzeko egin dena.
- Pieza unitarioak eta multzoak fabrikatzea.
- pdf fitxategiak sortzea, Autodesk Inventor Profesional softwarearekin egindako 3D fitxategiak ere sartuta.
- pdf fitxategiak sortzea, liburu elektronikoaren tutorialak ikusteko avi fitxategiak ere sartuta.
- pdf fitxategiak sortzea, Autodesk Inventor Profesional softwarearekin sortutako multzoen muntaia ikusteko avi fitxategiak ere sartuta.



Inprimatze eta diseinu industrial 3Dn fabrikazioko, modelatuko, arteko eta metalezko eraikuntzetako teknikariendako

Ikastetxeak

Lizarrako II Politeknikoa
Iruñeko "Virgen del Camino" IIP
Iruñeko Arte Eskola

Koordinatzailea

Jesús Zubicoa Ventura

Irakasleak

*Narciso Cruz Marín Chocarro
Miguel Ángel Hernández Barricarte
Fco. Javier Esquíroz Azpilicueta*

Helburua

Proiektuan honako helburu hauek lortu nahi dira:

- Nafarroako Lanbide Heziketako ikastetxeetan 3D diseinuko edukiak emateko euskarri gisa erabiltzen den *Diseño en 3D* argitalpena eguneratzea 3Dn diseinatze softwarearen azken bertsiora.
- Nafarroako Gobernu Lanbide Heziketako ikastetxeetan erosten diren 3D inprimagailuek izan behar dituzten ezaugarriak zehaztea.
- "Diseño en 3D.V13" liburuaren edizio digitala argitaratzea, irudien animazioarekin.

Ezaugarriak

Proiektua aldi berean garatu da ildo hauetan:

- "Diseño en 3D.V13" argitalpena eguneratzea. Autodesk Inventor softwarearen azken bertsiotik abiatuta, aurreko bertsioekiko berritasunak hauteman eta aztertu dira eta aldaketak argitalpenean sartu dira.
- 3Dko inprimagailuak aztertzea. Horretarako zenbait aldagairi erreparatu zaio, hala nola prezioa, birjarri beharreko material mota eta haren kostua, mantentze-lanak, etab. Gomendatzen da Witbox makinak erostea.
- Argitalpen digital interaktiboa. "Diseño en 3D.V13" argitalpena pdf formatura aldatu da eta nabigagarri bihurtu da, mugimendua duten irudiak sartuz; horretarako pdf converter softwarea erabili da.

PROIEKTUAREN ERABILGARRITASUNA

Ikasleentzat:

- 3Dn diseinaturiko piezak eta multzoak egitea 3D inprimagailuaren bidez, irakaskuntza atseginagoa eta errealagoa eginez.
- 3Dko diseinua ikasten duten heziketa zikloetako moduluetan kontsultarako eta ikasteko liburu bat izatea.

Irakasleentzat:

- Diseinua eta 3D inprimagailua erabiliz, irakasleek ikastetxean egiten diren lanabes, makina eta proiektuetan erabiltzeko piezak fabrikatzen ahalko dituzte.
- Ariketa argi eta mailakatuak izatea 3Dko diseinua eta inprimatzea irakasteko.

Ikastetxeentzat:

- 3Dn inprimatzeko makinak izatea, halakorik behar duten ikasle, irakasle eta enpresei zerbitzu emateko.
- 4.0 Industriako teknologietako batean erreferente izatea, zenbait ekoizpen sektoretan.

